

Terminologia Hiztegia

2002-09-30

Aurkibidea

Eremu-zuhaitza	3
Sarrera	4
Euskara-erdarak	5
Gaztelania-euskara	23
Frantsesa-euskara	30
Ingelesa-euskara	37
Erreferentzia bibliografikoak	44

EREMU-ZUHAITZA

- 1) Terminoak eta kontzeptuak
- 2) Terminografia
- 3) Hiztegiak
- 4) Normalizazioa

Sarrera

Euskararekin zerikusia duen terminologia-jarduerak, gutxi gorabehera, hogeita bost urte ditu. Baina orain arte ez genuen terminologiari buruz mintzatzean erabiltzen den hizkera berezituari buruzko hiztegirik. Arlo horretako terminoak normalizatzea da, beraz, esku arteko obraren helburua.

Lau atal nagusi jorratzen dira hiztegian: terminologia, terminografia, hiztegiak eta normalizazioa. Lehenengoak (Terminologia), terminologiaren teoriari buruzko oinarrizko kontzeptuak biltzen ditu. Bigarrenean (Terminografia), terminologia-lanaren eta haren emaitzen xehetasunak aztertzen dira. Hirugarrenean (Hiztegiak), hiztegi berezituaren mota desberdinak zehazten dira eta laugarrenean (Normalizazioa), terminoen normalizazioaz mintzatzean erabiltzen den hizkera azaltzen da.

Hiztegian oso oinarrizko kontzeptuak bakarrik hartu nahi izan dira. Berezi, ISO erakundeak terminologiari buruz emandako arauetan datozenak. Euskarazko ordainak aukeratzeko, berriz, orain arte gai honi buruz argitaratu dena bildu eta aztertu da. Badago, maila apalean izanda ere, euskarazko terminologiarekin zerikusi zuzena duen hizkera bereziturik ere. Esate baterako, "izenzalekeria" edo "izendapenarekiko morrontza" bezalako terminoak. Egia esan, honelako batzuk beren hurbileko kontzeptuei zegozkien fitxetan sartu ditugu azalpen gisa. Horrela, "izenzalekeria" "nominalizazio" sarreran aipatzen da.

Gure ustez, une aiposean argitaratzen da hiztegia, sortu berri den Terminologia Batzordearen lanetarako tresna baliagarria izango delako. Alde honetatik, hiztegian proposatzen diren terminoak behin-behinekotzat hartzekoak dira, Batzorde horrek berak ontzat emanak izan arte.

U Z E I

A

aditu

Terminoak eta kontzeptuak.

Lan terminologiko batean, aholkulari edo informatzaile gisa aritzen den aztergaiaren eremuko profesionala.

es especialista
fr spécialiste
en expert

aditu-talde

Normalizazioa.

Aztergai-arloko espezialista diren aditu eta terminologoen osatutako taldea, lan terminologikoan sortzen diren zalantzak argitu eta mugatzen dituenak.

es grupo de expertos
fr comité de terminologie
en group of experts

afixu

Ik. hizki

afixu bidezko eratorpen

Ik. eratorpen

aipamen

Terminografia.

Iturri jakin bateko pasartetik ateratako enuntziatua, fitxa terminologiko batean jasotzen dena. Definizioa, testuingurua edota oharra izan daiteke aipamena.

es cita
fr citation
en citation

akronimo

Terminoak eta kontzeptuak.

Siglazioz sortutako hitza, bereziki hitz arrunt bat bezala irakurri edo ahoskatzen dena. Hitzen hasierako letraz gain beste batzuk ere izan ditzake. Adibidez: *radar* Radio Detection and Ranging-en akronimoa da.

es acrónimo
fr acronyme
en acronym

aldaera morfologiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino baten aldaera estruktural edo gramatikaletako bakoitza. Adibidez: *bereizketa* eta *bereizkuntza*.

es variante morfológica
fr variante morphologique
en morphological variant

aldaera morfosintaktiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino baten aldaera bakoitza, sintaxi edo morfologiako bidetik eratua. Adibidez: *portaeraren teoria* edo *portaera-teoria*.

es variante morfosintáctica
fr variante morphosyntaxique
en morphosyntactic variant

aldaera ortografiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino berak izan ditzakeen grafietako bakoitza. Adibidez: *izar belar* edo *izar-belar*; *eslogan* edo *slogan*.

es variante ortográfica
fr variante orthographique
en spelling variant

aldaera sintaktiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino konplexu baten aldaeretako bakoitza, atzizki desberdinek mugatua. Adibidez, frantseseko *tarif de groupe* eta *tarif groupe*.

es variante sintáctica
fr variante syntaxique
en syntactical variant

arloko ikerketa terminologiko

Sin. ikerketa terminologiko sektorial

Terminoak eta kontzeptuak.

Erabileremu jakin bati dagokion termino-multzoa aztertzen duen ikerketa terminologikoa.

es investigación temática
fr recherche thématique; recherche terminologique thématique
en vocabulary research

artikulu

Hiztegiak.

Hiztegi batean, kontzeptuari buruzko datu terminologikoak ematen dituen testu-zatia.

es artículo
fr article
en entry

artizki

Terminoak eta kontzeptuak.

Eratorrietan, hitzaren barnean tartekatzen den hizkia, berez enklitikoa dena.

es infijo
fr infixe

en infix

asoziazio-erlazio

Ik. erlazio asoziatibo

atzizki

Terminologia. Hizkuntzalaritza, orokorra.

Eratorrietan, hitzaren bukaeran ezartzen den hizkia, berez enklitiko dena.

es sufijo
fr suffixe
en suffix

aurrizki

Terminoak eta kontzeptuak.

Eratorrietan, hitzari aurretik ezartzen zaion hizkia.

es prefijo
fr préfixe
en prefix

azpieroemu

Terminoak eta kontzeptuak.

Eremu bateko azpibanaketa bakoitza.

es subcampo
fr sous-domaine
en subdomain

azterketa terminologiko

Terminografia.

Erabileremu zehatz bati dagozkion kontzeptuak mugatzea, eta kontzeptuok izendatzeko erabiltzen diren terminoak testuinguruan bertan aztertzea.

es análisis terminológico
fr analyse terminologique
en terminological analysis

B

baliokide

Sin. ordain

Terminoak eta kontzeptuak.

Beste hizkuntza batean kontzeptu bera adierazten duen terminoa.

es equivalente
fr équivalent
en equivalent

baliokidetasun

Terminoak eta kontzeptuak.

Hainbat hizkuntzako terminoek kontzeptu bera adieraztea.

es equivalencia
fr équivalence
en equivalence

barne-mailegu

Terminoak eta kontzeptuak.

Hizkuntza bereko erabileremu batetik bestera pasa den termino mailegatua, edo hizkuntza-maila batetik bestera edota hizkuntza orokorretik teknikora.

Oharra: Nahastu egiten dira askotan zabalkuntza semantikoa eta barne-mailegu kontzeptuak.

Lehenengoak ikuspuntu semantikoari egiten dio erreferentzia (terminoak izendatzen duen nozioa aldatzea) eta bigarrenak ikuspuntu formalari (jadanik dagoen terminoa erabiltzea).

es préstamo interno
fr emprunt interne
en domestic loan

baztertze termino

Normalizazioa.

Erakunde arauemaile batek gaitzetsitako terminoa.

es término rechazado
fr terme rejeté
en deprecated term; rejected term

berrezarpen lexikal

Terminoak eta kontzeptuak.

Baztertuta geratu diren hitz zaharrei erabilera berria ematea, nahiz esanahi zaharrear, nahiz berrian. Adibidez: *maula*, *isun* edo *oreka* hitzekin gertatu dena.

es restauración léxica

bokabulario

Hiztegiak.

Espezialitate-arlo bateko edo gehiagoko terminoen bilduma, arlo horretako izendapenak eta definizioak jasotzen dituena. Elebakarra edo eleaniztuna izan daiteke.

es vocabulario
fr vocabulaire
en vocabulary

bokabulario alfabetiko

Hiztegiak.

Terminoak ordena alfabetikoan antolatuta dauzkan bokabularioa.

es vocabulario alfabético
fr vocabulaire alphabétique
en alphabetical vocabulary

bokabulario eleaniztun*Hiztegiak.*

Hainbat hizkuntzatako termino baliokideak biltzen dituen bokabularioa.

- es** vocabulario multilingüe
- fr** vocabulaire multilingue
- en** multilingual vocabulary

bokabulario elebakar*Hiztegiak.*

Hizkuntza bakarreko terminoak biltzen dituen bokabularioa.

- es** vocabulario unilingüe
- fr** vocabulaire unilingue
- en** monolingual vocabulary

bokabulario sistematiko*Hiztegiak.*

Terminoak ordena sistematikoan, hau da, kontzeptu-sistemaren arabera, antolatuta dauzkan bokabularioa. Normalean aurkibide alfabetiko bat ere izaten du.

- es** vocabulario sistemático
- fr** vocabulaire systématique
- en** classified vocabulary

C**corpus***Terminografia.*

Terminologia-lan batean erabilitako dokumentu guztien bilduma.

- es** corpus
- fr** corpus
- en** corpus

D**datu terminologiko***Terminografia.*

Kontzeptuari eta berau izendatzen duen terminoari buruzko informazioa ematen duten eremuetako bakoitza (sarrera, sinonimoa, hizkuntzaren kodea, erabilera geografikoa, erabilera-marka, definizioa, testuingurua, irudia, oharra, erabileremua...).

- es** dato terminológico
- fr** donnée terminologique
- en** terminological data

datu-banku terminologiko

Ik. termino-banku

datu-base terminologiko*Terminografia.*

Datu-terminologikoak dauzkan datu-basea. Hiztegi terminologikoa lantzean, informazioa antolatzeke erabiltzen da.

- es** base de datos terminológica
- fr** base de données terminologiques
- en** terminological database

definizio*Terminografia.*

Kontzeptuaren deskripzioa, deskribatutako kontzeptua kontzeptu-sistema barruko gainerako kontzeptuetatik bereizten duena.

- es** definición
- fr** définition
- en** definition

desinentzia

Ik. hondarki

determinatzaile*Terminoak eta kontzeptuak.*

Sintagma terminologiko baten osagai espezifikoa.

Oharra: Sintagma baten hedapena ere esaten zaio.

- es** complemento
- fr** déterminant
- en** determiner

E**erabilera geografiko***Terminografia.*

Terminoak zein herrialdetan edo herrialde bateko zein eskualdetan erabiltzen den adierazten duen eremua.

- es** indicador de país
- fr** indicatif de pays
- en** country identifier

erabilera-marka

Terminografia.

Termino baten erabilera adierazten duen eremua, beti ere ikuspuntu sozio-terminologikotik. Erabilera-marka arruntenak honakoak dira: hizkuntza-maila (lagunartekoa, normalizatua, merkataritzakoa, etab.), maiztasuna (*g.er.* gutxi erabiliarentzat, *g.g.er.* gaur gutxi erabiliarentzat), marka kronologikoa (*zahar.* zaharkituarentzat, *neol.* neologismoarentzat).

es marca de uso; indicador de uso

fr marque d'usage

en usage label

erabileremu

Ik. espezialitate-arlo

erabileremuaren berezko kontzeptu

Terminoak eta kontzeptuak.

Erabileremu jakin bati berez dagokion kontzeptua.

es concepto propio del área

fr notion propre à un domaine

en specific conception

erabileremuaren kode

Ik. sailkapen

erabileremuen sailkapen

Terminoak eta kontzeptuak.

Erabileremuen multzo egituratua.

es clasificación temática

fr classification des domaines

en subject classification

eratorpen

Sin. afixu bidezko eratorpen

Terminoak eta kontzeptuak.

Erroari aurrizkiak, artizkiak edo atzizkiak erantsiz, termino berriak sortzea.

es derivación; derivación propia

fr dérivation affixale; dérivation

en derivation; proper derivation

eratorpen sintagmatiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino konplexuak sortzea elementu lexikoak sintaktikoki lotuz. Adibidez, *postreko sardexka*.

es derivación sintagmática

fr dérivation syntagmatique

en syntagmatic derivation

eratorri

Terminoak eta kontzeptuak.

Eratorpenez sortutako terminoa.

es derivado

fr dérivé

en derivative

eremu

Terminografia.

Fitxa terminologikoan, informazio-unitate bat gordetzen duen erregistro-zatietako bakoitza. Eremu batzuk errepikagarriak izaten dira, esate baterako, terminoaren eremua (sinonimia kudeatu ahal izateko) edota terminoaren iturriaren eremua (iturri bat baino gehiago jaso ahal izateko).

es campo

fr champ

en field

eremu-zuhaitz

Terminografia.

Eremu jakin bateko kontzeptuak antolatzeko egitura.

es árbol de campo

fr arbre de domaine

en tree of concepts

eremuaren egitura

Terminoak eta kontzeptuak.

Eremu bateko osagaien antolaketa.

es estructura de campo

fr structure d'un domaine

erlazio asoziatibo

Sin. asoziazio-erlazio

Terminoak eta kontzeptuak.

Bi kontzepturen arteko erlazio-mota, ez-hierarkikoa: denboran edo espazioan oinarritutakoa eta kausa-ondoriozkoa.

es relación asociativa

fr relation associative

en associative relation

erlazio hierarkiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Bi kontzepturen arteko erlazio-mota, gaineko kontzeptu eta mendeko kontzeptuak maila ezberdinetan banatzen dituena: generiko-espezifikokoak eta partitiboak.

es relación jerárquica

fr relation hiérarchique

en hierarchical relation

erradikal

Terminoak eta kontzeptuak.

Hitz soil gisa edo eratorpenean oinarri lexikal gisa erabil daitekeen morfema. Erradikala eta erroa desberdinak dira. Adibidez, *gorri*, *gorritasun*, *gorritu*, *gorrixka*.

es tema

fr radical
en stem

errealitate

Terminoak eta kontzeptuak.

Irudikatu, jaso eta izenda daitezkeen objektu konkretu edo abstraktuen multzoa.

es realidad
fr réalité
en reality

errealitatearen identifikazio

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptualizazioarekin lotuta dauden objektuak jaso eta sailkatzeko prozesua. Objektuok hizkuntza batetik bestera alda daitezke.

es identificación de la realidad
fr découpage de la réalité
en segmentation of reality

erreferentzia

Terminografia.

Datu terminologiko baten iturriaren adierazlea.

es referencia
fr référence
en reference

erregionalismo

Terminoak eta kontzeptuak.

Erabilera geografiko zehatz bati mugatua dagoen terminoa.

es regionalismo
fr régionalisme
en regionalism

esanahizko neologismo

Terminoak eta kontzeptuak.

Lehendik baden unitate linguistikoaren esanahia moldatuz, beste kontzeptu bat izendatzeko edo berrizendatzeko sortzen den neologismoa.

es neologismo de sentido
fr néologisme de sens
en sense neologism

espezialitate-arlo

Sin. erabileremu

Terminoak eta kontzeptuak.

Jakintza-arlo berezi bati dagokion eremua.

es área temática
fr domaine; domaine d'emploi
en subject field

espezifikiko

Sin. kontzeptu espezifikiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptu generikoaren mendeko kontzeptua.

es concepto específico
fr notion spécifique
en specific concept

estentsio

Sin. kontzeptu baten estentsio

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptuak bere baitan hartzen dituen objektu individual guztien multzoa.

es extensión
fr extension d'une notion
en extension

ezaugarri

Sin. kontzeptu baten ezaugarri

Terminoak eta kontzeptuak.

Objektu jakin bati dagokion propietatearen abstrakzioa, kontzeptua bera zehazten eta mugatzen lagutzen duena.

es característica
fr caractère d'une notion; caractère
en characteristic

F

fitxa terminologiko

Terminografia.

Kontzeptu bati eta kontzeptua izendatzeko terminoei buruzko informazio guztiak modu egituratuan jasotzen dituen euskarria.

es ficha terminológica
fr fiche terminologique
en terminological record; term entry; entry

fitxategi terminologiko

Terminografia.

Fitxa terminologikoei osatzen duten multzoa, alfabetikoki edo sistematikoki antolatua.

es fichero terminológico
fr fichier terminologique
en terminology file

formazko neologismo

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptu bat izendatzeko edo berrizendatzeko, hizkuntza bateko elementu lexikalen elkarketa bidez sortzen den neologismoa.

es neologismo de forma

fr néologisme de forme
en form neologism

G

gaineko kontzeptu

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptu-sistema hierarkiko batean, beheragoko mailan mendeko kontzeptu batzuk dituen. Adibidez.: *jaka* (gaineko kontzeptua) eta *jaka gurutzatu* eta *jaka lepogabe* (mendekoak).

es concepto superordenado
fr notion superordonnée
en superordinate concept

gako-hitz

Sin. giltza-hitz

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptu-eremu bateko oinarritzko kontzeptua edo kontzeptu nagusia.

es concepto clave
fr notion-clé
en key concept

giltza-hitz

Ik. gako-hitz

glosario 1

Hiztegiak.

Termino zaharkituak, arraroak edo ezezagunak eskaintzen dituen hiztegia.

es glosario
fr glossaire
en glossary

glosario 2

Sin. lexiko

Hiztegiak.

Erabileremu bateko terminoak eta horien baliokideak ematen dituen hiztegi terminologikoa. Terminoen baliokideak hizkuntza batean edo gehiagotan eskaintzen dira.

es glosario; léxico
fr glossaire; lexique
en glossary; lexicon

gramatika-hitz

Terminoak eta kontzeptuak.

Hitz osoen arteko erlazioak mugatzen dituen hitza. Adibidez: *ezin*, *gabe*, *etab*.

es palabra gramatical
fr mot grammatical
en grammatical word

H

hapax

Terminoak eta kontzeptuak.

Behin bakarrik dokumentaturiko terminoa.

es hápax
fr hapax
en hapax legomenon; nonce word

hipostasi

Terminoak eta kontzeptuak.

Lehendik dagoen terminoaren kategoria lexiko edo gramatikala aldatuz egiten den termino-sorkuntza. Adibidez, *aldagai* izenondoa da, baina Matematikan izen gisa erabiltzen da.

es hipóstasis
fr hypostase
en hypostasis

hitz

Terminoak eta kontzeptuak.

Morfema bat edo gehiagoz osatutako esanahidun unitatea. Testu barruan forma grafikoak aurretik eta atzetik zuriunea du. Adibidez: *bizarra mozteko orri* terminoak hiru hitz ditu.

es palabra
fr mot
en word

hitz oso

Terminoak eta kontzeptuak.

Esanahia duen hitza, gramatika-hitzari kontrajarria.

es palabra plena
fr mot plein
en full word

hitz-elkarketa

Terminoak eta kontzeptuak.

Elementu lexiko autonomoak elkartuz egiten den termino-sorkuntza. Adibidez: *trenbide-garraioa*.

es composición
fr composition
en composition

hitzez hitzeko esanahi

Terminoak eta kontzeptuak.

Terminoaren esanahi literala.

- es** sentido literal
- fr** sens propre
- en** literal sense

hizki

Sin. afixu

Terminoak eta kontzeptuak.

Autonomia lexikalik ez duen hizkia, hitzaren erroari aurrean (aurrizki), erdian (artizki) edo bukaeran (atzizki) eransten zaiona.

- es** afijo
- fr** affixe
- en** affix

hizkuntz hiztegi

Ik. hizkuntza-hiztegi

hizkuntza berezitu

Sin. xede berezietarako hizkera

Terminoak eta kontzeptuak.

Especialitate-arlo jakin batean erabiltzen den hizkera. Hizkera orokorreko azpimultzo gisa hartu ohi da.

- es** lenguaje de especialidad
- fr** langue de spécialité
- en** special language; LSP

hizkuntza orokor*Terminoak eta kontzeptuak.*

Hizkuntz komunitate bereko hiztun gehienek erabiltzen eta ulertzen duten sistema linguistikoa.

- es** lengua general
- fr** langue générale
- en** general language

hizkuntza-hiztegi

Sin. hizkuntz hiztegi; hizkuntzaren hiztegi

Hiztegiak.

Hizkuntza bateko unitate lexikalei buruzko informazio semantiko, gramatikal eta fonetikoak eskaintzen dituen hiztegia.

- es** diccionario de lengua general
- fr** dictionnaire de langue
- en** language dictionary

hizkuntzaren kode*Terminografia.*

Fitxa terminologiko batean, terminoa zein hizkuntzatakoa den adierazten duen kodea. ISO erakundeak ezarritakoak erabiltzen dira. Adibidez: es (gaztelania), fr (frantsesa), en (ingeleza), eu (euskara), etab.

- es** indicador de lengua

- fr** indicatif de langue
- en** language identifier

hizkuntzazko testuinguru*Terminografia.*

Terminoak esaldiaren barnean nola erabiltzen den erakusten duen testuinguru.

- es** contexto lingüístico
- fr** contexte langagier
- en** linguistic context

hiztegi*Hiztegiak.*

Informazio semantiko, erreferentzial, gramatikal edo fonetikoak eskaintzen duten unitate lexikalen bilduma.

- es** diccionario
- fr** dictionnaire
- en** dictionary

hiztegi berezi*Hiztegiak.*

Ezaugarri jakin baten arabera hautatutako unitate lexikalak biltzen dituen hizkuntz hiztegia. Adibidez: sinonimoen hiztegia, hiztegi fonetikoak, etab.

- es** diccionario especializado
- fr** dictionnaire spécial
- en** specialized dictionary

hiztegi berezitu

Ik. hiztegi terminologiko

hiztegi eleaniztun*Hiztegiak.*

Unitateak bi hizkuntzatan edo gehiagotan eskaintzen dituen hiztegia.

- es** diccionario multilingüe
- fr** dictionnaire multilingue
- en** multilingual dictionary

hiztegi elebakar*Hiztegiak.*

Unitateak hizkuntza bakarrean eskaintzen eta deskribatzen dituen hiztegia.

- es** diccionario monolingüe
- fr** dictionnaire unilingue
- en** monolingual dictionary

hiztegi entziklopediko*Hiztegiak.*

Hizkuntza bateko unitate lexikalei buruzko informazio linguistikoa (semantikoa, gramatikala, eta fonetikoak) eta erreferentziala, hau da, objektuei edo gauzei buruzkoa, ematen duen hiztegia.

- es** diccionario enciclopédico

fr dictionnaire encyclopédique
en encyclopedic dictionary

hiztegi ilustratu

Hiztegiak.

Artikuluen barruan irudiak dauzkan hiztegia.

es diccionario visual
fr dictionnaire illustré
en visual dictionary

hiztegi orokor

Hiztegiak.

Hizkuntza bateko unitate lexikalak deskribatzen dituen hizkuntz hiztegia.

es diccionario general
fr dictionnaire général
en general dictionary

hiztegi terminologiko

Sin. hiztegi berezitu

Hiztegiak.

Erabileremu tekniko edo zientifiko bateko terminoak biltzen dituen hiztegia.

es diccionario terminológico
fr dictionnaire terminologique
en terminological dictionary

homofono

Terminoak eta kontzeptuak.

Ahoskera berdineko homonimoa. Adibidez, *ur* eta *hur* Hegoaldean.

es homófono
fr homophone
en homophone

homografo

Terminoak eta kontzeptuak.

Idazkera berdineko homonimoa. Adibidez, *baso* 'oihana' eta *baso* 'edontzia'.

es homógrafo
fr homographe
en homograph

homonimo

Terminoak eta kontzeptuak.

Beste termino baten forma grafiko edo foniko bera izanik, kontzeptu desberdina adierazten duen terminoa. Adibidez: *katu* Biologian eta *katu* Teknologian.

es homónimo
fr homonyme
en homonym

hondarki

Sin. desinentzia

Terminoak eta kontzeptuak.

Deklinagai edo aditz-erro bati eransten zaion elementu gramatikala, numeroa, kasua, pertsona, generoa, etab. azaltzen duena, eta deklinagaiari nahiz aditz horren paradigmari dagokion forma bakoitza egiteko erabiltzen dena.

es desinencia
fr désinence
en ending

I

ikerketa puntual

Sin. ikerketa terminologiko puntual

Terminoak eta kontzeptuak.

Eremu bateko edo gehiagoko termino-kopuru mugatu bati buruz edo termino bakarrari buruz egiten den ikerketa terminologikoa.

es trabajo de terminología puntual
fr recherche terminologique ponctuelle; recherche ponctuelle
en term research

ikerketa terminologiko

Ik. terminologia-ikerketa

ikerketa terminologiko puntual

Ik. ikerketa puntual

ikerketa terminologiko sektorial

Ik. arloko ikerketa terminologiko

ikerketa terminologiko sistematiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptu-sistema zehaztea eta bere izendapenen azterketa eta sistematizazioa oinarri duen ikerketa terminologikoa.

es trabajo terminológico sistemático
fr recherche terminologique systématique
en systematic research

ikur

Ik. sinbolo

indize

Hiztegiak.

Hiztegi batean agertzen diren terminoen zerrenda alfabetikoa, termino bakoitzaren kokalekuaren erreferentzia duena.

es índice

fr index
en index

informazio gramatikal

Terminografia.

Fitxa terminologikoan, terminoari buruzko zehaztasun gramatikalak eskaintzen dituen eremua. Termino baten kategoria lexikoa (izena, izenondoa, aditza, adizlaguna) edo kategoria gramatikala (generoa, numeroa) adierazten du.

es información gramatical
fr indicatif de grammaire
en grammatical label

intentsio

Sin. konprentzio; kontzeptu baten konprentzio
Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptuaren ezaugarrien multzoa.

es intención del concepto; comprensión
fr compréhension d'une notion; intention
en intension of a concept; intension

irudi

Terminografia.

Terminoak izendatzen duen kontzeptuaren irudikapen grafiko edo piktorikoa.

es imagen
fr illustration
en illustration

irudizko adiera

Terminoak eta kontzeptuak.

Hedapen kontzeptualaren ondorioz termino batek hartzen duen adiera. Adibidez: *adarra* (zuhaitzena, konkretua da) eta *adarra* (zientziakoa, abstraktua).

es sentido figurado
fr sens figuré
en figurative meaning

iturri

Terminografia.

Terminoak agertzen deneko dokumentua (idatzia edo ahozkoa).

es fuente
fr source
en source

iturri-kode

Terminografia.

Fitxa terminologikoan, terminoaren iturria adierazten duen kodea.

es código de fuente
fr code de source
en source identifier

itzulpen-hiztegi

Hiztegiak.

Unitateen baliokidea edo baliokideak biltzen dituen hiztegia. Ordenamendu alfabetikoa du eta informazio semantiko, gramatikala eta fonetikoaren izaten ditu.

es diccionario de traducción
fr dictionnaire de traduction
en translation dictionary

izendapen

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino batek kontzeptu bat izendatzea.

Adibidez, *iparburu* terminoak 'iparraldeko lurburua' izendatzen du.

Oharra: Baliokideak ematean, izendapenaren erabilera oker bat da *izendapenarekiko morrontza*, hau da, xede hizkuntzako izendapena finkatzean sorburu hizkuntzako izendapenaren eraikuntzari garrantzi handiegia ematea.

es designación
fr désignation; dénomination
en designation

J

justaposizio

Terminoak eta kontzeptuak.

Bi elementu lexikal elkarri alboratuz egiten den elkarketa-mota. Adibidez, *SECAM sistema*.

es yuxtaposición
fr juxtaposition

K

kalko

Terminoak eta kontzeptuak.

Hizkuntza batek beste hizkuntza bateko hitza edo esamoldea itzuliz osatzen duen mailegua. Adibidez, *hitzarmena salatze* terminoa *denuncia del convenio*-ren kalkoa da.

es calco
fr calque
en loan translation; calque

kanpoko mailegu

Terminoak eta kontzeptuak.

Beste hizkuntza batetik berriki jaso den terminoa.
Adibidez, *robot, rally*.

es préstamo externo
fr emprunt externe
en foreign loan

kide aizunak

Ik. sasi-adiskideak

kolokazio*Terminoak eta kontzeptuak.*

Elkarren segidan maiz azaltzen diren bi hitz edo ghiago. Adibidez, *auzia erabaki, aldeko iritzi*.

es colocación
fr collocation
en collocation

konprentzio

Ik. intentsio

kontzeptu

Sin. nozio

Terminoak eta kontzeptuak.

Mundu errealeko objektuen abstrakzioz lortutako irudikapen mentala.

es concepto
fr notion
en concept

kontzeptu baten estentsio

Ik. estentsio

kontzeptu baten ezaugarri

Ik. ezaugarri

kontzeptu baten konprentzio

Ik. intentsio

kontzeptu erlazionatu*Terminoak eta kontzeptuak.*

Beste kontzeptu batekin zenbait ezaugarri komun dituen kontzeptua.

es concepto relacionado
fr notion apparentée
en related concept

kontzeptu espezifikoa

Ik. espezifikoa

kontzeptu generikoa*Terminoak eta kontzeptuak.*

Oinarrizko kontzeptua, bere baitan kontzeptu espezifikoa hartzen dituena.

es concepto genérico
fr notion générique
en generic concept

kontzeptu integratzaile*Terminoak eta kontzeptuak.*

Osotasun gisa hartzen den objektuari erreferentzia egiten dion kontzeptua.

es concepto integrador
fr notion intégrante
en comprehensive concept; integrative concept

kontzeptu koordinatu*Terminoak eta kontzeptuak.*

Kontzeptu-sistema hierarkiko batean, maila berean dauden kontzeptuetako bakoitza. Adibidez: *jaka* kontzeptuaren mendekoak *jaka gurutzatu* eta *jaka lepogabe* kontzeptu koordinatuak lirarteke.

es concepto coordinado
fr notion coordonnée
en coordinate concept

kontzeptu mailegatu*Terminoak eta kontzeptuak.*

Beste eremu batetik maileguan hartutako kontzeptua.

es concepto prestado
fr notion empruntée à un domaine
en borrowed concept

kontzeptu partitibo*Terminoak eta kontzeptuak.*

Osotasunaren parte gisa hartzen den objektuari erreferentzia egiten dion kontzeptua.

es concepto partitivo
fr notion partitive
en partitive concept

kontzeptu-azterketa*Terminografia.*

Kontzeptu baten ezaugarriak, konprentzioa, estentsioa eta kontzeptuen arteko erlazioak zehaztea.

es análisis conceptual
fr analyse notionnelle
en conceptual analysis

kontzeptu-egiaztatze*Terminografia.*

Definizioetako eta testuinguruetako ezaugarri kontzeptualak adostea, kontzeptu eta baliokideen arteko edota terminoen arteko sinonimia ezartzeko.

es descripción conceptual
fr recoupement notionnel
en concept description

kontzeptu-eremu*Terminoak eta kontzeptuak.*

Kontzeptu nagusi baten inguruan antolatzen den kontzeptu-multzoa. Adibidez: *elektrizitate-tresnak* kontzeptuaren kontzeptu-eremua hau da: *bulego-lanpara, elektrodo, entxufe, linterna, pila alkalino, telebista-antena*, etab.

es campo conceptual**fr** champ notionnel**en** conceptual field**kontzeptu-sistema***Terminoak eta kontzeptuak.*

Aztergai izango den arloko objektuei dagokien kontzeptu-multzoa, kontzeptuen arteko erlazioen arabera egituratua.

es sistema conceptual**fr** système de notions**en** system of concepts; concept system**kontzeptua zedarritze***Terminoak eta kontzeptuak.*

Kontzeptua kontzeptu-sistema jakin batekoa dela identifikatzea.

es identificación de un concepto**fr** identification d'une notion**en** concept identification**kontzeptuen arteko erlazio***Terminoak eta kontzeptuak.*

Kontzeptu bi edo gehiagoren artean ezartzen den harreman-mota. Erlazioak hierarkikoak edo asoziaziozkoak izan daitezke.

es relación conceptual**fr** relation internotions**en** relation between concepts**korrespondentzia***Terminoak eta kontzeptuak.*

Bi termino edo gehiagoren konprentzioaren arteko kointzidentzia-maila.

es correspondencia**fr** correspondance**en** correspondence**kuasi-sinonimo***Terminoak eta kontzeptuak.*

Hizkuntza berean, kontzeptu bera edo antzekoa izendatzen duen terminoetako bakoitza, baina termino nagusiarekin erabat trukagarria ez dena. Kuasi-sinonimoak honakoak dira: hizkuntza-mailakoak (*buruko min* eta *zefalalgia*), erabilera geografikoaren arabekoak, profesionalak, denborazkoak, konkurrentziakoak, eta maiztasunaren arabekoak.

es cuasi-sinónimo**fr** quasi-synonyme**en** quasi-synonym**L****laburdura***Terminoak eta kontzeptuak.*

Terminoaren forma laburtua, hura osatzen duten letrak gutxituz edo murriztuz eratua. Adibidez: *izlag*. izenlagunarentzat eta *iz*. izenarentzat.

es abreviatura**fr** abréviation**en** abbreviation**laburtzapen***Terminoak eta kontzeptuak.*

Siglak, ikurrak eta laburdurak bere baitan hartzen dituen adierazle generikoa.

es abreviación**fr** réduction**en** abbreviation**lan terminologiko**

Ik. terminologia-lan

lematizazio*Terminografia.*

Unitate linguistikoaren oinarritzko forma ateratzeko prozesua.

es lematización**fr** lemmatisation**en** lemmatisation**lexiko**

Ik. glosario

lexiko alfabetiko*Hiztegiak.*

Termino-zerrenda ordena alfabetikoan eskaintzen duen lexikoa.

es léxico alfabético**fr** lexique alphabétique**en** alphabetical glossary**lexiko sistematiko***Hiztegiak.*

Termino-zerrenda ordena sistematikoan, hau da, kontzeptu-sistemaren arabera, eskaintzen duen

lexikoa. Normalean aurkibide alfabetiko bat ere izaten du.

- es** léxico sistemático
- fr** lexique systématique
- en** classified glossary

lokuzio terminologiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Forma sintaktiko eta esanahi ihartua duen hitz-multzoa.

- es** locución terminológica
- fr** locution terminologique
- en** idiom; locution

M

mailegu

Terminoak eta kontzeptuak.

Beste hizkuntza batetik edo hizkuntza bereko beste arlo batetik hartutako terminoa. Mailegu irentsiak edo egokituak (mailegua hartzen duen hizkuntzako arau fonetiko eta morfologikoetara egokitutakoak: *enbargo, asentamendu...*) eta irentsi gabekoak (hizkuntza hartzailean aldaketa ortografikorik egin gabe sartzen direnak: *campus, corpus...*) agertzen dira.

- es** préstamo
- fr** emprunt
- en** borrowed term

makroegitura

Hiztegiak.

Hiztegi bateko sarreren antolaketa orokorra.

- es** macroestructura
- fr** macrostructure
- en** macrostructure

makrotestuinguru

Terminografia.

Terminoa jasotzeko erabili den testuinguru orokorra.

- es** macrocontexto
- fr** macrocontexte
- en** macrocontext

mendeko kontzeptu

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptu-sistema hierarkiko batean, gaineko kontzeptutik abiatzen diren kontzeptuetako bakoitza. Adibidez: *jaka* kontzeptuaren mendekoak *jaka gurutzatu* eta *jaka lepogabe* lirateke.

- es** concepto subordinado
- fr** notion subordonnée
- en** subordinate concept

metahizkuntzako testuinguru

Terminografia.

Terminoa modu autonomoan, ikur gisa nola erabiltzen den erakusten duen testuingurua.

- es** contexto metalingüístico
- fr** contexte métalinguistique
- en** metalinguistic context

mikroegitura

Hiztegiak.

Hiztegi bateko artikuluen datu terminologikoen antolaketa.

- es** microestructura
- fr** microstructure
- en** microstructure

mikrotestuinguru

Terminografia.

Lantzen ari den terminoaren hurbileko testuingurua. Normalean puntutik puntura doan testuingurua da.

- es** microcontexto
- fr** microcontexte
- en** microcontext

morfema

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino batean, esanahia duen unitate minimoa. Adibidez, *kobre/z/ko eroa/le*.

- es** morfema
- fr** morphème
- en** morpheme

N

neologia

Sin. termino-sorkuntza

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino berriak sortzeko prozesua.

- es** neología
- fr** néologie
- en** neology

neologismo

Terminoak eta kontzeptuak.

Hizkuntza bateko hitz edo unitate lexikal berria, delako hizkuntzaren legeei jarraituz berriki sortua edo beste hizkuntza batetik mailegatua.

es neologismo
fr néologisme
en neologism; neoterm

nomenklatura*Terminografia.*

Aurretiaz ezarritako arauen arabera sistematikoki egituratutako terminologia. Adibidez, kimikakoa edo taxonomiakoa.

es nomenclatura
fr nomenclature
en nomenclature

nominalizazio*Terminoak eta kontzeptuak.*

Aditzetik abiatuta izena sortzeko prozesua.

Oharra: Izenzalekeria: aditzak erabili beharrean, neurririk gabe izenak hautatzeko joera. Adibidez, *langileen hautaketarako irizpideak* esatea, *langileak hautatzeko irizpideak* esan daitekeenean.

es nominalización
fr nominalisation
en nominalization

normalizazio-batzorde*Normalizazioa.*

Arloko terminologiarekin zerikusia duten erakundeetako ordezkariak biltzen dituen batzordea, terminoen normalizazioari buruzko erabakiak hartzen dituen.

es comité de normalización
fr commission de terminologie
en terminology committee

normalizazio-txosten*Normalizazioa.*

Terminoaren onargarritasun-mailari buruzko zalantzak biltzen dituen txosten terminologikoa, beti ere normalizazioari begira prestatua.

es dossier de normalización
fr dossier de normalisation
en standardization file

nozio

Ik. kontzeptu

O**objektu***Terminoak eta kontzeptuak.*

Errealitatean dagoen elementua, termino edo ikur baten bidez adieraz daitekeena.

es objeto
fr objet
en object

objektu-klase*Terminoak eta kontzeptuak.*

Ezaugarri berak dituzten objektuen multzoa.

es clase
fr classe d'objets
en class

ohar*Terminografia.*

Fitxa terminologikoan, terminoaren esanahiari edo erabilerari buruzko informazio osagarria ematen duen datua.

es nota
fr note
en note

oinarri*Terminoak eta kontzeptuak.*

Sintagma terminologiko baten osagai generikoa. Adibidez: *peritu bidezko froga* (azken osagai hau da oinarria).

es núcleo
fr déterminé
en determinate

onargarritasun terminologiko*Normalizazioa.*

Termino baten onarpenari buruz, aldeztu aurretik ezarritako irizpideen arabera egindako ebaluazioa.

es aceptabilidad terminológica
fr acceptabilité terminologique
en terminological acceptability

onargarritasun-maila

Ik. ponderazio-marka

ordain

Ik. baliokide

ordenamendu alfabetiko*Hiztegiak.*

Hiztegiko sarrerak alfabetoaren araberako hurrenkeran ordenatzeko sistema. Ordenamendu alfabetiko jarraitua (zuriune eta zeinuak kontuan izan

gabe) eta ordenamendu alfabetiko etenduna bereizten dira (zuriuneak, azentuak, etab. kontuan hartuta).

es orden alfabético; clasificación alfabética

fr classement alphabétique

en alphabetical arrangement; alphabetical ordering

ordenamendu misto

Hiztegiak.

Hiztegiko sarrerak ordenamendu alfabetiko eta sistematikoaren arabera ordenatzeko sistema.

es clasificación mixta

fr classement mixte

en mixed arrangement

ordenamendu sistematiko

Hiztegiak.

Hiztegiko terminoak eremu-zuhaitzaren arabera ordenatzeko sistema.

es clasificación sistemática

fr classement systématique

en systematic arrangement

P

polisemia

Terminoak eta kontzeptuak.

Izendapenaren eta kontzeptuaren arteko erlazio-mota: izendapen batek ezaugarri komunak dituzten bi kontzeptu edo gehiago adierazten ditu. Adibidez, terminologia (*zientzia*) eta terminologia (*terminomultzoa*).

es polisemia

fr polysémie

en polysemy

ponderazio-marka

Sin. onargarritasun-maila

Terminografia.

Fitxa terminologikoan, aurretiazko irizpideen arabera egiten den balorazioa adierazten duen kodea.

es código de fiabilidad

fr cote d'acceptabilité; cote de pondération

en acceptability rating

protokolo

Terminografia.

Fitxa terminologiko batean, datu terminologikoak biltzeko eman beharreko urratsak.

es protocolo

fr protocole

en procedure

S

sailkapen

Sin. erabileremuaren kode

Terminografia.

Fitxa terminologikoan, erabileremua zehazten duen datua.

es clasificación

fr code de domaine

en subject label

sarrera

Hiztegiak.

Hiztegi batean agertzen den terminoaren forma. Segidan datorkion artikularen burua izaten da.

es entrada

fr entrée

en entry term

sasi-adiskideak

Sin. kide aizunak

Terminoak eta kontzeptuak.

Hizkuntza desberdinetan, erro bera edo antz handia izan arren, esanahian alde nabaria duten terminoetako bakoitza. Adibidez: *es hacienda* eta eu *azienda* sasi-adiskideak dira.

es falsos amigos

fr faux amis

en false friends

sigla

Terminoak eta kontzeptuak.

Hitz anitzeko terminoen hitzen hasierako letrekin eratzen den terminoa. Adibidez: *Balio erantsiaren gaineko zerga*-rako *BEZ* erabiltzea. Sigla-sorkuntzari siglazio deitzen zaio.

es sigla

fr sigle

en initialism

sinbolo

Sin. ikur

Terminoak eta kontzeptuak.

Kontzeptu bat izendatzen duen letra, letra-multzoa edo zeinu grafikoa, zein guztien konbinazioa. Adibidez: *kg* kilogramoarentzat.

es símbolo

fr symbole

en symbol

sinonimia

Terminoak eta kontzeptuak.

Hizkuntza batean kontzeptu bera izendatzen duten terminoen arteko erlazio-mota.

es sinonimia
fr synonymie
en synonymy

sinonimo

Terminoak eta kontzeptuak.

Hizkuntza berean, kontzeptu bera adierazten duen terminoetako bakoitza.

es sinónimo
fr synonyme
en synonym

sintagma terminologiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Bi hitzez edo gehiagoz osatutako terminoa. Erreferentzia bakarrekoa da, hau da, kontzeptu bakarra izendatu behar du, terminoa esanahi-unitate baita. Adibidez: *balio erantsiaren gaineko zerga*.

es sintagma terminológico
fr syntagme terminologique
en terminological syntagm

sorburu-hizkuntza

Terminografia.

Terminologia konparatuan, terminoen baliokideak emateko abiapuntutzat hartu den hizkuntza.

es lengua de origen; lengua de salida
fr langue de départ
en source language

T

termino

Sin. unitate terminologiko

Terminoak eta kontzeptuak.

Erabileremu baten barruan, era unibokoan kontzeptu bakarra izendatzen duen unitate linguistiko oro. Terminoaren funtzio nagusia izendapena da, hots, errealitate (zehatz edo abstraktu) baten eta hizkuntza-zeinu baten artean erlazioa sortzea.

es término
fr terme
en term

termino bakun

Sin. termino simple

Terminoak eta kontzeptuak.

Hitz bakar batez osatutako terminoa.

es término simple
fr terme simple
en simple term

termino baten aldaera

Terminoak eta kontzeptuak.

Termino bakoitzeko dagoen formatako bakoitza.

es variante
fr variante d'un terme
en variant of a term

termino baten esanahi

Terminoak eta kontzeptuak.

Terminoak, eremu zehatz batean, izendatzen duen kontzeptuaren adiera. Erreferentzia bakarrekoa da.

es significado de un término
fr sens d'un terme
en meaning

termino baten osagai

Terminoak eta kontzeptuak.

Morfema bakar batez baino gehiagoz osatua dagoen terminoaren elementuetako bakoitza.

es elemento de un término
fr élément d'un terme
en term element

termino konplexu

Terminoak eta kontzeptuak.

Hitz batez baino gehiagoz osatutako terminoa.

es término complejo
fr terme complexe
en compound term; complex term

termino lehenetsi

Normalizazioa.

Erakunde arauemaile batek gomendatzen duen terminoa.

es término preferido
fr terme privilégié
en preferred term

termino motibatu

Terminoak eta kontzeptuak.

Sintagma terminologikoaren esanahia, osagai diren terminoaren esanahiak batuz adierazten den terminoa. Adibidez: *gari-jotzeko makina*.

es término motivado
fr terme motivé
en motivated term

termino murriztu*Terminoak eta kontzeptuak.*

Hitz anitzeko terminoaren aldaera, hitz gutxiago jarrita eratzen dena. Termino murriztu asko izen berezi luzeen forma laburtuak izaten dira. Adibidez: *Herri Administrazioaren Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen Legea* esan beharrean *Administrazio eta Prozedura Legea*.

- es** término abreviado
- fr** terme abrégé
- en** abbreviated term

termino nagusi*Terminografia.*

Fitxa terminologian, kontzeptua izendatzeko lehentasunezko gisa aukeratutako terminoa. Termino nagusia ordena sintagmatiko normalean ematen da eta forma lematizatuan.

- es** entrada; lema
- fr** vedette
- en** main entry

termino onartu*Normalizazioa.*

Termino lehenetsiaren sinonimo osagarri gisa onartzen den terminoa.

- es** término tolerado
- fr** terme toléré
- en** admitted term

termino simple

Ik. termino bakun

termino zaharkitu*Normalizazioa.*

Dagoeneko erabiltzen ez den terminoa.

- es** término obsoleto
- fr** terme désuet
- en** obsolete term

termino-banku

Sin. datu-banku terminologiko

Hiztegiak.

Makrohiztegi terminologikoa, arlo zientifiko edo tekniko askotako hiztegiak kontzeptuak biltzen dituena.

- es** banco de datos terminológicos
- fr** banque de terminologie
- en** term bank; terminological data bank

termino-familia*Terminoak eta kontzeptuak.*

Erro bereko terminoen multzoa.

- es** familia de términos
- fr** famille de termes

